



I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	LATINA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia. 2. Kompetentzia sozial eta zibikoa. 3. Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia 4. Arterako kompetentzia. 5. Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Asun Villanueva	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimererako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Latinaren elementu morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak identifikatzea eta horiek ikastetxean erabiltzen diren hizkuntzetakoekin erlazionatzea. 2. idatzizko ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea. 3. Hizkuntza erromanikoen jatorria eta bilakaera ezagutzea. Hizkuntzen ezaugarri komunak eta hizkuntzen aniztasuna Europako	1. Latinaren oinarrizko elementu morfologikoak eta egitura sintaktikoak ezagutzea, eta horiek norberaren hizkuntzakoekin konparatzea. 2. Latinezko esaldi motz eta errazak itzultzea, eta erretrobertsio bidez perpaus bakunak sortzea latinaren berezko egiturak erabiliz 3. Eguneroko lexikoko termino erromantzeak sorrarazi dituzten etimoei bilakaera fonetikoko



herrien kultura-aberastasun gisa balioestea.

4. Euskararen, gaztelaniaren eta ikasleek dakizkiten beste hizkuntza batzuen forma-elementuei eta egitura linguistikoari buruz gogoeta egitea, haiek latinarekin konparatuz; izan ere, latina, euskara bezala, hizkuntza flexibo da, eta hizkuntzak ikastea erraztu dezake.

5. Latinak euskaran izan duen eragina ikustea.

6. Latinak hizkuntza erromanikoetan eta euskaran izandako bilakaera fonetikoaren oinarritzko arauak erabiltzea. Gaztelanian zein euskaran latineko ondare-hitzak, kultismoak eta esamoldeak identifikatzea hainbat testuinguru linguistikotan

7. Norberaren hizkuntzan latindar jatorria duen ohiko lexikoa ulertzea, bai eta, horien osagarri etimologikoetan oinarrituta, lexiko kultua, zientifikoa eta teknikoa ulertzea ere.

8. Erromako kulturaren eta zibilizazioaren ezaugarri nagusiak ezagutzea, horiek gure kultura-, arte- eta erakunde-ondarean izan duten eragina identifikatzeko eta balioesteko; horretarako, informazio- eta komunikazio-iturri eta bide ugari erabiliko dira.

9. arrazoitzeko eta kritikatzeko ahalmena sortzea, tradizio horrekiko jakin-minezko eta errespetuzko jarrera bultzatzeko.

10. Literatura latindarreko funtsezko lanen testu itzuliak irakurtzea eta interpretatzea.

oinarritzko arauak aplikatzea, eta ondare-termino baten eta kultismo baten arteko erlazio semantikoa adieraztea.

4. Hitzak familian biltzea, eta eratorpenaren eta hitzelkarketaren mekanismoak aplikatzea.

5. Jatorri grekolatindarra duten eta eguneroko hizkuntzan, eta lexiko zientifiko eta tekniko espezifikoan, erabiltzen diren osagaiak identifikatzea, eta horien zentzu etimologikoa azaltzea

6. Ikasleak dakizkien hizkuntzetan sartutako latinismoak eta jatorri latindarra duten ohiko lokuzioak ezagutzea, eta horien esanahia azaltzea.

7. Itzulitako autore klasiko eta modernoentzako testuen laburpena egitea eta, horietan, ezaugarri historikoak edo kulturalak identifikatzea.

8. Erromanizazioak ekarritako aldaketak identifikatzea.

9. Garai guztietako literatura- eta arte-lanetan mitologia klasikoa inspirazio-iturri gisa bereiztea, eta ondare arkeologikoan erromanizazioaren aztarnak identifikatzea.

10. Irakasleak lagunduta lan erraz bat egitea Erromako lan artistiko edo teknikoen, historiaren, erakundeen edo bizimoduaren edozein alderdiri buruz.



EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. eduki-multzoa. Latinaren sistema.

- Alfabetoa eta latinaren ahoskera: oinarrizko fonetikaarauak. Latinezko testuak irakurtzea eta termino gardenak identifikatzea.
- Latina hizkuntza flexiboa. Kasuak eta horien balio sintaktiko nagusiak. Latinaren eta ikasleak erabiltzen dituen hizkuntza erromanikoen egituren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak bereiztea. Latina eta euskara konparatzea, biak hizkuntza flexiboak direla kontuan hartuta.
- Hitz-klaseak. Izen-flexioa, izenordain-flexioa eta aditzflexioa. Latinezko flexioaren kategoria gramatikalak ezagutzea, eta horiek egungo hizkuntza flexiboen elementuekin konparatzea, euskararen elementuetan arreta berezia jarriz. Maiz erabiltzen den latinezko lexikoa.
- Perpausen sintaxia. Hitz-ordena. Oinarrizko perpausegiturak. Análisi morfosintaktikoa, latinezko esaldi motz eta errazak itzultzea eta perpaus bakunen erretrobertsioa ematea. 2. eduki-multzoa. Latinaren historia eta bilakaera.

2. eduki-multzoa. Latinaren historia eta bilakaera

- Latinaren jatorria eta bilakaera. Indoeuropar hizkuntzen sailkapena.
- Latin klasikoa eta latin arrunta. Ahozko eta idatzizko hizkuntza bereiztea. Hizkuntza erromanikoen sortze- eta bilakatze-prozesuak aztertzea. Latinaren eragina euskararen bilakaeran.
- Bilakaera fonetikoa. Gehien gertatzen diren aldaketa fonetikoak azaltzea. Ondare-terminoak eta kultismoak. Latinezko erro bera eta bilakaera fonetiko desberdina duten hitzen arteko erlazio semantikoa.
- Latinak euskarari eta latinetik ez datozen beste hizkuntza moderno batzuei egindako lexiko-ekarpena. Euskaraz eta beste hizkuntza ez erromaniko batzuetan idatzitako testuak irakurtzea, eta horietan jatorri latindarreko terminoak identifikatzea.
- Europako hizkuntza nagusien jatorri komuna balioestea, latinak euskarari egindako ekarpen linguistikoa ezagutzea, lexiko berria eskuratzeko jakin-mina izatea, gainerako hizkuntzak errespetatzea eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen kultura-desberdintasunak onartzea. 3. eduki-multzoa. Hitzen eraketa.

3. eduki-multzoa. Hitzen eraketa.

- Hizkuntza erromanikoetako osagai latindarrak. Gaztelaniaz eta euskaraz erabiltzen diren lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak identifikatzea. Hitzak definitzea beren etimoetan oinarrituta.
- Lexiko zientifikoa eta teknikoa. Terminologia espezifikotan latinezko etimoak ezagutzea. Hitz-elkarketaren eta eratorpenaren prozesuak.
- Latinismoak eta latinezko lokuzioak. Ahozko eta idatzizko hizkuntzako latinezko esamoldeak ezagutzea.
- Hitzen esanahi etimologikoa eta lexikoa era egokian erabiltzea. Latinaren ahalmena gauza berriak eta aurkikuntzak izendatzeko. 4. eduki-multzoa. Mundu klasikoaren transmisiorako beste bide batzuk.

4. eduki-multzoa. Mundu klasikoaren transmisiorako beste bide batzuk.

- Gizarte erromatarraren eremu geografikoa eta historikoa: enklabe nagusiak, pertsonaiak eta gertaera historikoak.
- Erakundeak eta eguneroko bizitza. Horien erreferenteak gure ikuspuntu soziokulturaletik



interpretatzea.

- Erromanizazioaren aztarna materialak. Europan, oro har, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki, dagoen ondare arkeologiko eta artistiko erromatarra behatzea, zuzenean edo bestela.
- Mitologia latindarra literaturan eta arte plastikoetan eta ikus-arteetan.
- Literatura latindarreko lan eta egile nagusiak, mendebaldeko kulturako literatura-oinarri gisa.

5. Arazo egoera

Lexiko atalaren barruan lexiko zientifikoa lantzeko medikuntza arloan hain zuzen ere prestatuko dugu arazo egoera azken hiru hilabetetan garatzeko. Izenburua izan liteke: “Latina eta greko hiztegiarekin ospitaletik ibilbidea”

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Metodologia inklusiboa, anitza eta zabala.
- Gaiak malgutasun eta aniztasunekin aurkeztuko dira.
- Ikasgaiaren arlo desberdinak : latina, testu latindarren interpretazioa, lexiko latindarraren bilakaera eta Erromak utzitako ondarea erlazionatuko dira.
- Testuen itzulpena baliabide ezin hobea izango da aurreko arlo guztiak ondo jabetzeko
- Esaldi eta testuen itzulpenak erabiliko dira azalpenekin batera ikasleak gero eta autonomia gehiago lor dezan.
- Etxerako lanak erabiliko dira edukiak indartzeko eta akats arruntak zuzentzeko.
- Ikasleen partizipazioa guztiz beharrezkoa izango da.
- Talde lanak eta sarean dauden errekursoak erabiliko dira teoriako eduki guztiak lantzeko.
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Planean adierazten den bezala, irakurmena lantzeko atazak egingo dira. Ataza horiek egiteko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa hirugarren ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko da.



<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Etxerako lanak. • Koadernoak. • Errefortzurako ariketak. • Gelako lana eta jarrera • Gelako behaketa. • Azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Ezaguerak: %80 • Prozedurak: %10 • Jarrera: %10
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Etengabeko ebaluazioa</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--